

MEZA SANTUA ZER DAN ETA ZENBAT BALIO DUEN.



Jainkoaren onran egiten diran gauza guzien artean, ez da batere mezak adiña balio duenik. Mezako gauzak arrigarriak dira ta misterioz beteak. Mezak eskatzen du, indar guziak dituen Jaunaren eskua. Onek Mezan erakusten duen onetsmendua ta amorea, eziñ neurri ditekeana da, ta parerik gabekoa beraren pazienza. Begira bekio nondik nai Mezari; non nai, ta edozeiñ aldetatik erakusten dio zerbait dakusenari; arritzeko diña ta geiago.

Meza da presenta bat, Jaunaren eskutik artu ditugun ondasun ta fabore guziak baño geiago balio duena, ta gure pekatuen zorrak ateratzeko aski ta sobera dena.

Ongi ezagutua zedukan Mezaren balio au, Kolonbiere, Jesusen Konpañiako gizon andi ark. Orregatik zion: «beldur naz, nere baruak, nere otoitzak, eta nere limosna edo penitenziak atsegiñ bearrean, atsekabe eman diozaten nere Jaunari, edo garbitu bearrean, zikiñagoa utzi dezaten nere barrena; bada nere barren charrak edo barreneko asmo ta intenzio galduak gaizta ditzake oriek eta beste edozeiñ gauza on. Baña Meza ematen edo enzuten dedanean, ez dut lotsarik, Zeruko guziaz deitu ta galdetzeko, non arkituko duten, Jainkoari dakarkiodan presentak adiña balio duenik. Orduan, dio, lotsarik gabe, ta, emain didalako uste osoarekin eskatzen diot nere oben, edo egin ditudan bekatu guzien barkamentua: eskatzen diozkat neretzat, nere adiskide ta gaizkigilleendako gogora aladiña ondasun ta grazia; eta deritzat guti, egiten diodan presentaren alde; ta guti estimatzea edo gutitan idukitzea dela deritzat presentak balio duen baño gutiago Jainkoari eskatzea.»

¡Zorionekoak eta doatsuak batayaturik gaudenok, ezagutzen baditugu, Mezan ditugun ondasunak! Onetarako, ta beste mundurako bear diran gauzak Mezan arkitzen dira. Emendik datoz, eriaren osasuna, ta bekatuen barkazioa; emendik, gorputz-animen gose-egarria il-

tzeko, bear den janaria ta edaria; emendik datoz artzen ditugun gauza guziak: eta geiago artzen ezpaditugu, ez da zer aitzaki-billa ibilli: gu-rea da kulpa; aski da emen gogotik billatzea, nai duguna arkitzeko.

Mezakoan Kristo Jaunak, bitarteko onak bezala, eskatzen dio bere Aitari bear degun guzia; ta eskatzen duenaren alde egiten dio, erio-tzeko orduan egin zion presenta; edo orduan iñuri zuen odola ta eman zuan bizia, ematen diozka Mezan Aitari, guri digun guretzat eskatzen diona. ¿Nola ukatuko dio Aitak Semeari onela eskatzen dion gau-zarik?

A. SEBASTIAN MENDIBURU-K.

